

MUSIKA. Tangoa eraberritu zuen artistaren oinordeko bihurtu da soinu jotzaile frantziarra, azken urteotan

Piazzolaren lana ekarriko du gogora Richard Gallianok gaur, Donostian

Musikari argentinarraren hainbat obra joko ditu Kursaalean emango duen kontzertuan

Mikel Lizarralde | DONOSTIA

Hil zenetik hamaika urte igaro badira ere, oraindik gaur egun Astor Piazzolaren itzalak luzea izaten jarraitzen du. Tangoaren eraberritzaile handiena izan zen musikari argentinarra, eta haren ondareak artista garaikide ugarirengan eragin du. Horien guztien artean, Richard Galliano eskusoinu eta bandoneoi jotzaile frantziarra nabarmendu da bereziki. Piazzolaren oinordeko zuzentzat jo izan da Galliano; hain zuzen ere, bandoneoiaren maisu argentinarraren lana ekarriko du gogora gaur Donostiako Kursaal jauregian eskainiko duen *Piazzola forever* kontzertuan. Besteak beste, *Invierno porteño*, *Milonga del angel* eta *Bandoneoi eta orkestrarako kontzertua* lanak joko dituzte Gallianok eta bere taldeak.

Richard Galliano (Le Cannet, 1950) txikitan hasi zen eskusoinua jotzen, eta Miles Davisen, Max Roachen, eta, batez ere, Clifford Brown tronpetistaren lanaren eraginpean, tresna hori jazz musikara moldatzeko saioak egin zituen oso gaztetatik. Eskusoinua eta jazz bateragarriak ez ziren ustea oso zabaldua zegoen 60ko hamarkadan, eta, ondorioz, urte haietan txapelketara bideratu behar izan zuen bere lana Gallianok.



J.F. MORENO / EFE

Richard Galliano musikari frantziarra Astor Piazzolaren oinordeko zuzena bihurtu da azken urteotan.

1975ean Claude Nougaroren taldean sartu zenean, ordea, musikari frantziarraren zoria erabat aldatu zen. Jazz musika landu ahal izan zuen, eta orkestraburu lanak egiteko aukera ere izan zuen.

Nolanahi ere, Piazzola eza-gutzea bere lanarentzat erabakigarria izan zela aipatu izan du Gallianok, argentinarrak bere

norabidea nolabait aldarazi zuelako: «Piazzolak esan zidan: 'Jazz soinu jotzailearen irudi amerikarregia duzu. Hori ez duzu ona. Zure sustrai frantziarrak aurkitu behar dituzu. Nik tango berria asmatu dudana bezalaxe, zuk *musette* berrian sakondu beharko zenuke'».

Maisuaren aholkuei kasu egin zien Gallianok, baina maite

zuen jazz musikari bizkarra eman gabe: «*Musettea* iragane-ko musika zen, eta hura lantzen zutenek 1930ean bezala jotzen zuten eskusoinua, Charlie Parker, John Coltrane eta Jimi Hendrix inoiz existitu ez balira bezala. Nik, ordea, nigan eragin duten musikarien lana gehitu diot, hau da, Piazzola, Coltrane, Bill Evans eta Debussyrena.

Luis Caminok eta Mark Whitfieldek irekiko dute Gazteszenako udaberriko zikloa

Leire Aramendi | DONOSTIA

Herrialde eta estilo askotako doinuak izango dira entzungai, datozen hila-beteetarako Musika Bulegoak Donostiako Gazteszena aretoan antolatutako kontzertu zikloan. Luis Camino perkusionista donostiarrak eta Abya Yala taldeak eskainiko dute lehen kontzertua otsailaren 12an.

Otsailaren 20an jazzaren estilo klasikoa ekarriko dute Mark Whitfield gitaristak, Reggie Johnson baxu jotzaileak eta Alvin Queen bateria jotzaileak. Nilo MC kubatarrak, beriz, hip hop latinoa eskainiko du.

Martxoan, jazz kontzertu bana eskainiko dute Jim Blackek (5ean) eta Gary Bartz Quartet taldeak (25ean). Senegalgo Orchestra Baobabek, beriz, Afrikako musika ekarriko du hilaren 18an.

Karibeko doinuak joko ditu Trinidad Tobagoko Renegades Steel Bandek apirilaren lehenean eta jazzaren ikuspegi gaztea eskainiko du Steve Coleman saxofonistak maiatzetan. Gogol Bordello eta bere etno punk musikak itxiko du ekainean kontzertu zikloa.

Joseba Martin | GLASGOW

The Simpsons telesaileko ale ezagun batean bezala, hotza heldu da hiri honetara: *Glasgow winter* deitzen diote iparraldetik datorren haize izoztu honi. Dena den, jaialdia aurrera doa, biharko agurraren bila. Bide horretan ostegun gaua izan genuen azken artista euskaldunaren kontzertua. Oreka Tx The Arches aretoan agertu zen, Swap taldearen atzetik. Talde berezia da hau, bi biolin jotzaile suediar eta beste bi britainiar lagun (akordeoia eta gitarra akustikoa). Folketik hasita jazzera eta beste leku berrietara abiatzen dira. Bildutako 200 lagunek ontzat eman zuten eskaintza, baina berotasun pixka bat falta izan zitzaien.

The Arches areto bitxia da. Central Station azpian dago ko-

Txalaparta beroak vs. 'Glasgow winter'

OREKA TX CELTIC CONNECTIONS-EN. Oso harrera ona egin zien jaialdiko publikoak txalapartariei The Arches areto bitxian

katuta eta noizean behin trenak pasatzen entzuten dira. Adreiluzko hormak daude arku haue- tan eta hori dela eta, argien lana goitik behera aldatu behar zen. Gero, Igor Otxoaren ingelezko aurkezpenei esker, entzuleek gauza gehiago jakin zuten txalapartaren inguruan. Entzuleen artean Phil Cunningham zegoen, bikoteari Charlie & Parker deitzen diona. Hasieran txalaparta tradizionalaren oihartzu- nak entzun ziren, berehala sua pizteko. Entzuleek tinko begira-

tzen zuten, xehetasunik galdu gabe. Soinu bikainak eta argi egokiek helburua lortzen lagundu zuten eta kantu bakoitza amaitu ondoren txalo eta oihu beroak bildu zuten euskaldun- nek. Ordubeteluze horretan sei- kotearen pieza ezagunak entzun genituen: *Keinuka ilargiari*, *Adabegi*, Laboaren *Ihesa zilegi balitz*... Eta *bis* bakarrean lau es- kutan egindako pieza bat, de- nen harriuraren aurrean. Dena den, nahiz eta bizpahiru aldiz le- ku txikietan jo (BBC irratiari, ba-

tez ere) urduri samar agertu zi- ren musikariak: Igor ingelesare- kin eta kantuen ordenarekin trabatu zen noizean behin, bai- na jendeak bero-bero eskertu zuen musikariaren ahalegina. Azkenean, denak pozik. Entzu- leak, zerbait berria ikusi zutelako, eta musikariak oso harrera ona jaso zutelako.

Phil Cunninghamekin zuzenean

Ia aldi berean eta hiri honetako beste aretoetan Sean Keane eta bere hiru anaiak eta Galesko

Runrig taldeko kantaria den Donnie Munro beren lanean aritzen ziren. Eta hau da hau: beste kontzertua (oraingoan la- burragoa) eman behar izan zu- ten Oreakoek, Hotel Centrale- ko *festival club*-ean... gaueko hi- ruretan. Hemen, nerbioak ahaztuta, primeran ibili ziren, jendea zoratu arte, eta lehe- nengo aldiz Phil Cunningham (deituiozue Philipo) beraiekin aritu zen agertoki batean. Pozik geratu ziren txalapartariak, etxera bueltatzeko gogoz.

Carlos Nuñezen aukera da gaur. Glasgown oso ezaguna da. Bihar, jendearen eskakizu- nei esker, Eddie Readerren bi- garren kontzertua areto nagu- sian, Royal Scottish National Orchestrarekin, Eskoziako bar- doa den Robert Burns-en kan- tuekin. Horrela amaituko dira aurtengo Celtic Connections jaialdiak.